

53 Heineken[®] JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA / JULIO / JULY
25-29 2018

Mary Stallings eta Michel Portalek jasoko dute 2018ko Donostiako Jazzaldia Saria

53. Heineken Jazzaldiak egitarau osoa argitaratu du eta aurrez iragarritako artista handi guztiak berretsi ditu

Heineken Jazzaldiak 2018ko uztailaren 25etik 29ra Donostian ospatuko den 53. edizioko egitarau osoa argitaratu du: 105 emanaldi izango dira guztira, hirutatik bi baino gehiago dohainik, 17 agertokitan.

Jazzaldian izango ditugun lehen mailako izarren artean daude Gregory Porter, Chick Corea, Cécile McLorin Salvant, Caetano Veloso, Rubén Blades, Brad Mehldau, Kenny Barron, Dave Holland, Zakir Hussain, Chris Potter, Christian Scott, Robert Glasper, Yann Tiersen, Mary Stallings, Michel Portal, Benny Green, Jacob Collier, Curtis Stigers, Gary Clark Jr., Salvador Sobral, Rabih Abou-Khalil, Naïssam Jalal, eta beste hainbat.

53. Heineken Jazzaldian, gainera, leku handia izango dute tokiko musikariek, 30 kontzertu baino gehiagoren protagonista izango baitira.

Mary Stallings eta Michel Portalentzat 2018ko Donostiako Jazzaldia Saria

Donostiako Jazzaldia Saria 1994an ezarri zen, jazzaren iraganean eta orainaldian garrantzi handia izan duten artisten ibilbidea eta etsenplua aitortu eta saritzeko.

2018ko saria Mary Stallings abeslariari eta Michel Portal multiinstrumentistari emango zaie.

Sarituen zerrendan jazzaren historiako hainbat talentu distiratsu agertzen dira.

53 Heineken® JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA / JULIO / JULY
25-29 2018

- 1994: Doc Cheatham
- 1995: Phil Woods
- 1996: Hank Jones
- 1997: Steve Lacy
- 1998: Chick Corea
- 1999: Max Roach eta Clark Terry
- 2000: Kenny Barron
- 2001: Ray Brown
- 2002: Elvin Jones
- 2003: Bebo Valdés
- 2004: Shirley Horn eta Fernando Trueba
- 2005: Keith Jarrett eta Charles Mingus (in memoriam)
- 2006: Herbie Hancock
- 2007: Wayne Shorter
- 2008: Ahmad Jamal
- 2009: Roy Haynes
- 2010: Ron Carter
- 2011: Toots Thielemans
- 2012: Jimmy Cobb eta Pierre Lafont (in memoriam)
- 2013: Lee Konitz eta Juan Claudio Cifuentes
- 2014: Toshiko Akiyoshi
- 2015: Benny Golson
- 2016: Ellis Marsalis
- 2017: Charles Lloyd

HEINEKEN JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 E. jazzaldia@donostia.eus
www.heinekenjazzaldia.eus



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

Mary Stallings

Mary Stallings kantaria adibide ezin hobe da ohartzeko zeinen funtsezkoa den heldutasuna —bai bizitzakoa eta bai artistikoa— abeslari handi bat izateko. Haren swing paregabea, bluesez zamatutako fraseatzea eta interpretazio-dohainak kontuan hartzen badira, erraz ulertzen da zergatik esan duen, duela gutxi, *The New York Times*-ek "Stallings, beharbada, bizirik dagoen jazzeko abeslari onena" dela. 1950eko hamarraldiaren azkenetarako jaioterri duen San Frantzisko inguruko klubetan abesten hasia zen izen handiko hainbat artistaren taldeekin: Ben Webster, Cal Tjader, Earl Hines edo Wes Montgomery. Gero, Count Basie, Billy Eckstine eta Dizzy Gillespien orkestretako kide izan zen. Bere izenean argitaratu zituen diskoak pianista handiak lagun zituela grabatu zituen, Monty Alexander eta Geri Allen, kasu. Erretiratuta aldi luze bat eman ondoren, Wynton Marsalis tronpetari prestigiotsuak itzularazi zuen agertokietara. Stallingsek Estatu Batuetako jazzeko tenplu handi guztietan ez ezik —Blue Note, Lincoln Center...—, Monterey edo San Frantziskoko jaialdietan ere abestu du.

Michel Portal

Michel Portal baionarra, jazzeko euskal musikarien dekanoa, artista sailkaezin horietakoa da, ustez mugiezina denari erronka egiten diona eta mundu guztia harritzen duena jotzen dituen musika-tresnetan erakusten duen maisutasunagatik. Klarinete-jotzaile aparta da, ezaguna musika klasikoaren munduan egin dituen Brahms eta Mozarten interpretazioengatik. Batez ere klarinete baxuan nabarmentzen da, Eric Dolphyren lorratzean, baina ez da atzera geratzen saxo altuarekin (hasieran Paul Desmond-en eraginpean), tenorrarekin eta sopranoarekin ere. Eta bandoneoia ere jotzen du. Instrumentu aniztasun horregatik, musikari buruz dituen ideengatik eta agertokian inprobisatzeko duen ahalmenagatik, Michel Portal lehen mailako artista da Europako jazz free deituaren barruan. 1971n, egitura irekiko Unit proiektua jarri zuen abian, zeinak laborategi musikalaren rola jokatu baitu mugaz bestaldeko abangoardiako hainbat musikarirentzat. Portalek, elementu formal minimo batzuetatik abiatuta, agertokian

53 Heineken® JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA / JULIO / JULY
25-29 2018

bertan lantzen den obraren dimentsio kolektiboa aldarrikatzen du, baina konpositore gisa ere nabarmendu da, zinema eta telebistarako musika asko idatzi baitu.

Jose Luis Lanzagortaren erakusketak

Jose Luis Lanzagorta diseinatzaile grafikoa da Heineken Jazzaldiko aurtengo kartelaren egilea. Bi erakusketatan ikusi ahalko dira haren lanak Jazzaldiak irauten duen bitartean.

Jazz Prints

Begiaundi Press

Jazzeko izen mitikoei egindako omenaldia, tipografian inprimatutako grabatuen edizio mugatu baten bidez.

Begiaundi Press –Jose Luis Lanzagortak sortu zuen, 2014an– esperimentazio eta ikerketa grafikoa egiten duen tailerra da, prentsa tipografikoan inprimatutako edizio mugatuak ekoizteko.

Uztaila 6-29

Inaugurazioa: ostirala, uztailak 6, 19:30

Orduategia: Asteartetik larunbatera 11:30-13:30 / 17:00-20:00

Tokia

Ekain Arte Lanak

Iñigo kalea 4

20003 Donostia

T +34 943 421 729

www.ekainartelak.com

HEINEKEN JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481 900 E. jazzaldia@donostia.eus

www.heinekenjazzaldia.eus



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

53 Heineken® JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA / JULIO / JULY
25-29 2018

Kartelak: Jazzaldia

Estudio Lanzagorta

Jazzaldiaren 11 ediziotako kartelen erakusketa, 1989kotik hasi eta 2018ko aurtengo honetara.

Uztaila 19-Abuztua 20

Inaugurazioa: osteguna, uztailak 19, 20:00

Ordutegia: 17:00-01:00

Tokia

Altxerri Bar & Jazz

Reina Regente 2

20003 Donostia

T +34 943 421 693

www.altxerri.eu

HEINEKEN JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481 900 E. jazzaldia@donostia.eus

www.heinekenjazzaldia.eus



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura